

Udal teknikariek kirolean euskara sustatzeko PROZESUAREN GIDA



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Proiektu honen ardura teknikoa EMUN, KOOP E.ak izan du



ZER IZAN DA PROIEKTU HAU

Hizkuntza Politika Sailburuordetzak sustatuko proiektu honen xedea izan da tokian tokiko haurren zein gazteen kirol sistemetan euskararen erabilera areagotzeko, ezaugarri soziolinguistiko ezberdinak dituzten herrietan aplikatzekoa izan daitekeen eredia sortzea.

2022-2023 urteetan garatu da pilotajea 3 herritan (Amorebieta-Etxano, Amurrio eta Aretxabaleta).

Pilotajearen lan egiteko modua izan da fase bakoitzean Emunek diseinatutako eredu estandarretatik abiatu, herri bakoitzean beharrezkoak zituzten moldaketak eginda erabili eta bukaeran ekarpenekin tresna “estandarizatuak” sortzea. Baliabide estandarizatu hauek edozein udaleko teknikairentzat baliagarri izateko helburuarekin sortu dira.



PILOTAJEAN PARTE HARTU DUTEN HERRIAK




UDALERRIAK-UDALAK	Amorebieta-Etxano	Aretxabaleta	Amurrio
Lurralde	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Biztanle kopurua	19.208	7.165	10.394
Euskararen ezagutza guztira	%56,64	%66,30	%36,83
Euskararen ezagutza 5-9	% 99,4	% 100	% 99,5
Euskararen ezagutza 10-14	% 99,5	% 99,53	% 98,8
Euskararen ezagutza 15-19	% 93,98	% 99,22	% 98,29
Euskararen erabilera guztira	%23	%41,2	
Erabilera 2-14		%56,1	
Erabilera 14-24		%42,40	
Udalaren antolaketa	2 euskara teknikari Kirol teknikaria	Euskara teknikaria Kirol teknikaria	Kirol teknikaria Euskara, hezkuntza, osasuna eta bitartekaritza teknikaria
Kirol elkarte kopurua guztira	23	5	15

ZEIN DA GIDAREN HELBURUA

Euskarri honen helburuak honakoak dira:

- Herriko kirol sisteman euskara sustatu nahi duen udal teknikarientzat erabilgarria izan daitekeen prozesu posible bat eskaintzea.
- Hiru herrietan prozesua herri bakoitzaren egoerara nola aldatu den erakustea (kontuan hartu hemen dauden baliabideak herrietako aldaketa ekarpenak jaso ondorengoak direla).
- Pilotajearen sortutako materiala udal teknikari guztien eskura jartzera.



GIDAREN ANTOLAKETA

- Gida hau prozesuaren urratsen arabera antolatuta dago.
- Fase bakoitzaren azalpenak honako azpiatal hauek barnebiduko ditu:
 - Urratsaren azalpena eta egitekoak
 - Euskarri orokorra (hiru herrietako ekarpenak jaso ondoren estandarizatua)
 - Herri bakoitzean erabilitako euskarria
- Beraz, gidaren ibilbide honetan *“ibilbide estandarra”* eta *“herri bakoitzera egokitutako ibilbidea”* ikusi ahal izango dira.
- Prozesu honetako fase guztietan marko berbera erabili da. Hain zuzen, kirolean euskara areagotzeko sortutako markoa. Marko hori 4 ardatzen baitan antolatzen da:
 - Ezagutza
 - Erabilera
 - Entrenamenduak
 - Kudeaketa sistema



PROZESUAREN FASEAK ETA FASE BAKOITZEKO TRESNAK



Urratsaren azalpena eta egitekoak

Herriko kirol elkarten zerrenda osatuta proiektuaren berri emango diegu. Urrats honetan gakoa izango da kirol elkarteei azaltzea zergatik nahi duen Udalak beraiek euskara planak egitea.

Elkarteetako barne egoerak ezagutzeko ordezkariei galdetegiak pasako dizkiegu. Herriko kirolaren antolaketa ezaugarritzeko, kirol ibilbidearen kalkulu orria osatuko dugu.

Auto-diagnostikoa egin duten kirol elkarte bakoitzak bere ekintza plana diseinatuko du Udaleko teknikariarekin batera. Euskarrian proposatutako markoaren baitan antolatuko dira kirol elkarteak epe labur/ertain/luzera hartuko dituen erronkak.

Orain arte parte hartu duten kirol elkarteekin lanena jarraitzea da helburua. Horretarako bi tresna proposatzen dira: kirol mahaia eta jarraipenerako adierazleak.

Teknikariak kontuan izatekoak

Aurretik elkarte hauekin zein harreman egon da? Kontaktua eta azalpenak idatziz, aurkezpen saioan, telefonoz, emailaz... izan daitezke.

Euskarria udal bakoitzak erabaki behar du (papera, online, aplikazioak ...).

Elkarteak egoera desberdinean egon daitezke. Behar komunak identifikatzeko baliagarria lanketa.

Eskatutako lanketaren ondoren garrantzitsua da babesa eta jarraipena eskaintzea. Jarraipen kuantitatiboa egiteko aukera eskainiko dute adierazleak. Kirol mahaia elkarrekin hasunartzeko eta beraine beharrak jasotzeko izango da nagusiki.

TRESNAK

Aurkezpen gutun idatzia*

Diagnostiko galdetegiak

Kirol ibilbidearen excella

Mikroplanen kalkulu orria

Praktiken gida

Kirol Mahaia

Adierazleak

Herri bakoitzean erabilitako euskarriak



Amorebieta-Etxano



Amurrio



Aretxabaleta

*Herriko tresnetan ez daude aurkezpen gutunak. Lehen kontaktua telefonoz egin zen 3 herrietan.